

- I) BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAK, indarrean dagoen araudia betez (128/2022 ED), gida hau prestatu du, Bilboko Portuko “Itsasontzietatik datozen hondakinak hartzeko eta manipulatzeko plana”ren laburpen gisa, eta erabiltzaile guztien eskura jarri du.

Ingurumena babesteko politika orokorrean, ontziek itsasora hondakin gutxiago botatzea lehentasunezko helburua da itsas ingurunea babesteko. Kontuan hartu da, besteak beste, “Ontzien poluzioari aurrea hartzeko hitzarmena”, MARPOL 73/78 hitzarmenaren azken bertsioa. Hitzarmen horren arabera, Espainiako portu batean eskala egiten duen itsasontzi bateko kapitainak nahitaez utzi beharko ditu ontzian dituen hondakin guztiak portuko harrera-instalazio batean, portutik irten baino lehen. Hondakinak portutik irten aurretik entregatzeko eskatuko da baldin eta hurrengo eskala-portua zein den ez badakigu edo eskuragarri dagoen informazioaren arabera ezin bada ziurtatu portu horrek harrera-instalazio egokiak dituenik; batez ere, SafeSeaNet itsas informazioa trukatzeko sisteman eta GISISen jasotako informazioa hartuko da kontuan.


Erabaki bera hartuko da itsasontziak 128/2022 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituenean, edo, itsasontzia ainguratuta dagoela, egiaztatzen denean ontziratutako biltegiatze-baldintzak ez direla egokiak edo biltegiatze-gaitasun espezifiko nahikoa ez dela metatutako eta aurreikusitako bidaian metatuko diren hondakin guztietarako.

- II) MARPOL 73/78 hitzarmeneko I., II., IV., V. eta VI. eranskinetan agertzen diren ontzi-hondakinak ontzian bertan jasotzen dituzte enpresa baimendu edo kontratatuek, ontzi edo kamioi bidez.

Getxoko, Abrako eta Santurtziko aisialdiko ontzien elkarteko eta Zierbenako eta Santurtziko arrantzaleen kofradietako kirol-portuetako I. eranskineko hondakinentzako edukiontzia jarrita daude instalazioetan.

Petronor SA findegiaren instalazio hartzaileak (I. eranskina, karga-hondakinak) haren instalazioetan daude, hango ontziek erabil ditzaten.

- III) Tradeberen instalazio hartzaileen kokapena (Limpiezas Nervión):



IV) Karga-hondakin hauek ekartzen dituzte ontziek gehienez:

- Nahaste hidrokarburatuak (MARPOLen I. eranskina)
- Hiri-hondakinen parekoak (MARPOLen V. eranskina kategoria guztietan)

V) I. (B eta C motak), II., IV., V. eta VI. eranskinetako hondakinak jasotzeko baimendutako enpresa:

Tradebe Bilboko Portua
Limpiezas Nervión SA
Punta Sollana, 12
48508 Zierbena

Telefona: (34) 944 836 726
Faxa: (34) 944 833 159
Helbide elektronikoa: info.linersa@tradebe.com
www.tradebe.com

VI) Estatuko Portuei eta Merkataritza Ontziari buruzko Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan arabera, Bilboko Portuan eta bertako ainguralekuan ez dago baimenduta ziklo irekiko scrubberak erabiltzea; izan ere, artikulua horrek debekatu egiten du portuko jabari publikoan itsasontziek edo edozein motatako tresna mugikorrek isurketak edo igorpen kutsatzaileak egitea, finkoak, likidoak zein gaseosoak izan.

VII) MARPOL Hitzarmenaren II. Eranskinaren eta MEPC 315(74) ebazpenean argitaratutako zuzenketen arabera, arau zorrotzak ezarri behar dira produktu flotatzaile iraunkor gisa (X, Y) sailkatutako substantzia likido kaltegarriak dituzten tankeak garbitzeko uren eta hondakin-isurketa operazionalen kontrolerako. Karga uzteko eremutik irten baino lehen, tankeak aldeztu aurretik garbitzeko eta hondakinak portuko harrera-instalazioetan

derrigorrez husteko baldintzak ezartzen dira.

VIII) Zerbitzuaren edo instalazio hartzaileen inguruko kontsultak, kexak, erreklamazioak edo iradokizunak egiteko, hona jo daiteke:

Bilboko Portuko Agintaritza

Telefona: (34) 944 871 200

Hedapeneko kaia (Ugaldebietako sarbidea)

h.el.: jinoriza@bilbaoport.eus

48980 Santurtzi

IX) Ontzietako kapitainek edo haien ordezkariak baldintza hauek bete behar dituzte hondakinak entregatzeko jakinarazpenak edo adierazpenak egitean:

Ontzia iritsi baino 24 ordu lehenago egin behar dute, gutxienez. Bidaia 24 ordu baino gutxiagokoa bada, aurreko portutik irtetea.

Jakinarazpena “e-puertobilbao” Bilboko Portuko Agintaritzaren plataforma telematikoaren bidez izapidetuko da (www.epuertobilbao.com). EUDn jasotako informazioak zehatz-mehatz adierazi behar ditu eranskin/kategoria bidez, portura iristean, itsasontzian zeuden hondakin-kantitateak.

X) I. II., IV. eta VI. eranskinetako hondakinak jasotzea:

Enpresa kontsignatarioak 12 ordu lehenago eskatu behar dio zerbitzua enpresa jasotzaileari, eta ontzia entrega hori egiteko prest noiz egongo den jakinarazi behar dio; enpresa jasotzaileak, berriz, egindako eskaerak denbora gutxiagoan betetzen saiatu behar du. Asteburuetako edo jaiegunetako zerbitzuak ostiralean edo azken lanegunean eskatu behar dira.

V. eranskinetako hondakinak jasotzea:

Enpresa jasotzaileak jasotzen ditu egunero ontzitik, enpresa kontsignatarioak aurretik ezer jakinarazi gabe.

XI) Hauek dira hondakinak jasotzeko eta tratatzeko tarifak eta aplikatzeko arauak:

BILBOKO PORTUAN HONDAKIN SOLIDOAK ETA LIKIDOAK JASOTZEKO ZERBITZUAREN TARIFA FINKOA 2026. URTEA

1.- PORTUKO AGINTARITZARI ORDAINDU BEHARREKO TARIFAK

Portuko Agintaritzak, Portuen 2011ko Legearen Testu Bateratuaren 132. artikuluaaren arabera, tarifa finko bat kobratuko die atrakatzen duten itsasontzi guztiei, hondakinak biltzeko zerbitzua erabiltzen duten ala ez kontuan hartu gabe. Tarifa finko hori ontziaren tonaje gordinaren (GT) unitateen arabera da, eta eskubidea emango die kostu gehigarririk gabe MARPOL hitzarmenari eta I. eta V. eranskinei dagozkien hondakinak deskargatzeko (kanpoan geratuko dira kargako hondakinak).

Ez da inolako zuzeneko tarifarik kobratuko MARPOL Hitzarmenaren V. eranskinetako hondakinengatik (karga-hondakinak izan ezik), kargatutako hondakinen bolumenean oinarritutako eta kostu gehigarriak gabeko entrega-eskubidea bermatzeko; hori horrela izango da, salbu eta bolumen horrek II. eranskinetan ezarritako formularioan adierazitako biltegiatzearen gehieneko ahalmena gainditzen bada, edo formulario horretan jakinarazitako entrega-bolumenetik nabarmen aldentzen bada.

Bilketa itsasotik edo portuko II. Eremuan egiten bada, tarifa finkoa I. eremuko bilketarako zehaztutako tarifa baino % 25 garestiagoa izango da.

Portuen 2011ko Legearen Testu Bateratuaren 132. artikuluan, tarifa finkoari aplikatu dakizkiokeen hobariak jasotzen dira, bai eta salbuespenak ere.

Ontzi bati Bilboko Portuko eskala bakoitzean aplikatzen zaion tarifa finkoa oinarritzko zenbatekoaren (R1) eta koefiziente hauen arteko biderkaduraren emaitza izango da, ontziaren tonaje gordinaren (GT) unitateen arabera:

ONTZIAREN NEURRIA (GT)

- a) 0 eta 2.500 GT arteko ontziak
- b) 2.501 eta 25.000 GT arteko ontziak
- c) 25.001 eta 100.000 GT arteko ontziak
- d) 100.000 GT baino gehiagoko ontziak

TARIFA FINKOA:

- R1 x 1,50
- R1 x (6 x 10⁻⁴ x GT)
- R1 x [(1,2 x 10⁻⁴ x GT) + 12]
- R1 x 24,00

Bidaiari-ontziei dagokienez (ferryak, ro-paxak eta gurutzaontziak), hau gehitu behar zaio aurreko tarifari: oinarritzko zenbatekoa (R2) Eskala Adierazpen Bakarrean ageri den ontziko jende-kopuruaz biderkatzearen emaitza. Bidaiariak eta tripulazioa sartzen dira kopuru horretan.

(R1) oinarritzko zenbatekoa 80 € da, bidaiari-ontzietarako izan ezik (75 €); (R2) oinarritzko zenbatekoa, berriz, 0,25 €. Balio horiek aldatu egin ditzake Estatutako Aurrekontuen Lege Orokorrak edo, hala badagokio, horretarako onartzen den besteren batek, portu-sisteman zerbitzuaren kostuek duten bilakaeraren arabera.

Tarifa honen zenbatekoari 1,05eko koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaio.

2.- ERABILTZAILEAK PORTUAN ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ENPRESEI ORDAINDU BEHARREKO GEHIENENKO TARIFAK

I) Ontziak zerbitzu-ematei ordaindu beharreko tarifak

Zerbitzua emateagatik sortutako tarifek barne hartuko dituzte zerbitzua emateko beharrezkoak diren kostuak; gardenak, bidezkoak eta ez-diskriminatzaileak izango dira, eta maximotzat hartuko dira. Zerbitzu-emateek beren tarifa ofizialak argitaratuko dituzte, eta izaera eta mailari buruzko informazio egokia jarriko dute portuko erabiltzaileen eskura, (EB) 2017/352 Erregelamenduaren 15.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Paragrafo honetako tarifak honako hauen deskargetan jasotako bolumenengatik bakarrik ordainduko dizkiete ontziek zuzenean zerbitzua ematen dutenei:

- a. Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginako 132. artikulua eta Ontzien Hondakinak Hartzen Dituzten Portu-instalazioei buruzko otsailaren 15eko 128/2022 Errege Dekretuak edo, hala badagokio, aplikatu beharreko araudiak arautzen duten tarifa finko edo zeharkakoaren irismentik kanpo utzitako

hondakinak.

- b. I. eta V. eranskinetako hondakinak geldialdiaren zazpigarren egunaren ondoren, edo tarifa finko edo zeharkakoa ordaintzetik salbuetsita dauden itsasontzien hondakinak
- c. I., II. eta V. eranskinetako karga-hondakinak
- d. Ezarritako mugak gainditzen dituzten hondakinak:
 - Tarifa finkoaren edo zeharkako tarifaren kargura deskargatu beharreko hondakinen bolumenak biltegitratzearen gehieneko ahalmena gainditzea, itsasontziek sortutako hondakinak hartzeko portu-instalazioei buruzko otsailaren 15eko 128/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kalkulatuta.
 - Hondakinen benetako entregak % 25ean gainditzea itsasontziak berak hondakinak jakinarazteko formularioan (itsasontziek sortutako hondakinak hartzeko portu-instalazioei buruzko otsailaren 15eko 128/2022 Errege Dekretuan aurreikusitakoan) adierazitako balioa.
 - Itsasontziak eraginda, zerbitzua ematean atzerapenak edo kostu gehigarriak gertatzea.

II) Ontziak zerbitzu-emaileei ordaindu beharreko tarifak

1. Tarifen oinarria, bildutako hondakin edo karga-hondakinen metro kubikoen kopurua eta hondakinen tipologia izango dira.
2. Zerbitzu bakoitzeko gutxieneko zenbateko bat ezarri ahal izango da, zerbitzu-emaileek zerbitzuak sortutako kostuak estal ditzaten, bildutako karga-hondakinen bolumena ez bada honako kopuru hauek baino handiagoa: I. eta II. eranskinetarako, 5 m³.
3. Errekarguak aplikatuko dira, penalizazio gisa, itsasontziari egotz dakizkiokeen gorabeherengatik. Honako kontzeptu hauengatik onartzen da errekkarguak ezartzea, zeinak zuzenean ordaindu ahal izango baitizkio ontziak zerbitzu-emaileari:
 - a. 45 minututik gorako atzerapena zerbitzua ematean, ontziak eragina. 70,56 € orduko edo frakzioko.
 - b. Zerbitzua ematen duen enpresaren ponpaketa-ekipoak erabiltzea. 145 € orduko edo frakzioko, eta gutxienez 2 ordu erabilera bakoitzeko.
 - c. MEPC.277 (70) eta 295 (71) ebazpenek zehazten duten gutxieneko bereizketarik gabe hondakinak entregatzea: 80 €/m³ edo frakzioa.
 - d. Hondakinak edo karga-hondakinak itsasoz jasotzen badira eta Zierbenako olatu-hormaren eta Luzueroko puntako olatu-hormaren artean edo portuko II. eremuan egiten bada hori, zerbitzu horiengatik 162,02 €-ko errekkargua ezarriko da irteera bakoitzeko. Baliabideak ontziaren eskura jartzen diren unean aplikatuko da errekkargu hori, zerbitzua bertan behera utzi eta aldeztu aurretik behar adina jakinarazi ez bada ere, ontziari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta.
 - e. I. eranskinetako, II. eranskinetako, IV. eranskinetako eta VI. eranskinetako (likidoak) hondakinen ontzi-aldaketa itsasontziko ponpekin egiten bada eta haien errendimendua ez bada orduko 5 m³-ra iristen, zerbitzua eman duenak zuzenean fakturatuko dizkio zerbitzu-ordu guztiak itsasontziaren ordezkariari, orduko edo frakzioko 141,12 €-an.
4. Ezin izango da gainkosturik edo aparteko kosturik onartu prestazioa egiten den egunaren edo orduaren arabera, Portuei eta Merkataritza Nabigazioari buruzko Legearen 113.4 artikulua h) apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorritik.
5. Tarifa-egitura hori nahitaez aplikatu beharko dute zerbitzu-emaile guztiak.

III) Itsasontziak zerbitzu-emaileei ordaindu beharreko gehieneko tarifak, tarifa finkoaren edo zeharkakoaren irismenetik kanpoko hondakinak jasotzeagatik eta karga-hondakinak jasotzeagatik:

HONDAKINAK

- **MARPOL – I. eranskina – Hidrokarburoak.**

Bilketa eta tratamendua: 104,54 € m³-ko edo frakzioko.

Zerbitzu bakoitzeko fakturatu beharreko gutxieneko bolumena: 5 m³

- **MARPOL – IV. eranskina – Ur zikinak.**

Bilketa eta tratamendua: 156,80 € m³-ko edo frakzioko.

Zerbitzu bakoitzeko fakturatu beharreko gutxieneko bolumena: 1 m³

- **MARPOL – V. eranskina: Karga-hondakinak ez diren zabor solidoak.**

Bilketa eta tratamendua (hondakin-kategoriaren arabera): 54,36 € m³-ko edo frakzioko.

Zerbitzu bakoitzeko fakturatu beharreko gutxieneko bolumena: 1 m³

- **MARPOL – VI. eranskina – Atmosferaren kutsadura.**

Hondakin solidoen bilketa eta tratamendua: 14,63 € kg-ko.

Hondakin likidoen bilketa eta tratamendua: 156,80 € m³-ko edo frakzioko

Zerbitzu bakoitzeko fakturatu beharreko gutxieneko bolumena likidoentzat: 1 m³

KARGA-HONDAKINAK

- **MARPOL – I. eranskina**

FP < 60 °C duten hondakinen bilketa eta tratamendua: 300 €/t

FP > 60 °C duten hondakinen bilketa eta tratamendua: 150 €/t

Hondakin solidoen tarifa (solid waste HC): 0,480 €/kg

Fakturatu beharreko gutxieneko bolumena, solidoak salbu: 5 m³

- **MARPOL – II. eranskina**

Bilketa eta tratamendua: 104,54 m³-ko edo frakzioko.

Zerbitzu bakoitzeko fakturatu beharreko gutxieneko bolumena: 5 m³

- **MARPOL – V. eranskina**

Hondakin solidoen bilketa eta tratamendua: 54,36 € tonako edo frakzioko.

Hondakin likidoen bilketa eta tratamendua: 150 € tonako edo frakzioko.

Zerbitzu bakoitzeko fakturatu beharreko gutxieneko bolumena likidoentzat: 1 m³

1.- Gurutzaontzien kaiko jarduera eta segurtasuna hobetzeko, itsas bitartekoeekin jaso beharko dira, ahal dela, ontziek sortzen dituzten hondakinak. Hondakinak lehorretik bildu behar izanez gero, kaiko jarduera eta segurtasuna zaintzeak lehentasuna izango du.

2.- Hondakin likidoen kasuan, tarifa hau aplikatzeko, mahuka konektatzen denetik deskonektatzen denera arteko denbora-tartea hartuko da bilketa-denboratzat; lekualdatzeetan erabilitako denbora ez da kontuan hartuko Hondakin solidoen kasuan,

bilketarako bitartekoak eskura jartzen direnetik entrega amaitzen den arte igarotako denbora.

Ontziaren kapitainak edo haren portuko ordezkariak hala eskatuta emango da zerbitzua.

Zerbitzuaren fakturazioa honela xehatuko da:

- Bilboko Portuko Agintaritzaren fakturazioa.- 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 132. artikuluan ezarritako tarifa finkoa, eskala bakoitzeko lehenengo zazpi egunetan aplikatzekoa.
 - Zerbitzua ematen duenaren fakturazioa.- II., IV. eta VI. eranskinetan jasotzen diren deskargak, I. eta V. eranskinetako hondakinak (zazpigarren egunetik aurrera egindako deskargen ondoriozkoak) eta dagozkien errekaratuak.
- 3.- IV. eranskinetako hondakinei dagokienez, aplikatuko diren tarifak MARPOL 73/78 hitzarmeneko IV. eranskinetan definitzen diren ur zikinenak dira. Hondakinak aztertzean hidrokarburoekin edo beste produktu kimiko batzuekin poluituta daudela ikusiz gero, kasuan kasuko tarifa aplikatuko da, tratamenduaren kostuaren arabera, eta aldeaz aurretik Bilboko Portuko Agintaritzak onepena eman beharko du.
- 4.- MARPOLen V. eranskinetako hondakinen bilketari dagokionez, ontziak portuan ematen duen egun bakoitzeko fakturatuko da, ontziak hondakinak entregatu ala ez; ezer entregatzen ez badu, kondizio normaletan merkataritza-ontzi bakoitzak egunean sortzen duena 1 m³ baino gutxiago dela joko da.

Zerbitzua egunero emango da, horretarako eskaerarik egin gabe, eta Luzueroko puntako olatu-hormaren barruko aldean atrakatuta nahiz ainguratuta dauden ontzi guztiak bisitatuko dira.

Zaborra plastikozko poltsa itxitan entregatuko da, eta MARPOL hitzarmenaren V. eranskinetan (kategoria guztietan) zabortzat jotzen dena bakarrik hartuko da zabortzat.

Zerbitzu-emaileak big-bag motako edukiera handiko poltsak, kaxa erresistenteak eta antzekoak jarriko ditu hala behar duten itsasontzien eskura, hondakinak modu egokian bereizteko eta entregatzeko; bitarteko horiek egokiak izango dira operazioen, eskifaia eta ingurumenaren segurtasuna bermatzeko, itsasontzi bakoitzaren ezaugarriak, balantzak, zerbitzua emateko erabiltzen diren bitartekoak edo zerbitzuan zehar eguraldi txarrak eragindako baldintzak zeinahi direla ere. Zerbitzua eman duenak zuzenean fakturatuko dio zerbitzu hau itsasontziaren ordezkariari.

XII) Bilboko Portuko Agintaritzari hondakin-bilketaren akatsen berri emateko, ikusi erabiltzaileentzako informazio honen VII. atala. Eskuragarri duzu zerbitzua ematean gerta daitezkeen akatsen berri emateko erreklamazio-eredua.

XIII) Enpresa kontsignatarioek informazio hau eman behar diete Bilboko Portuan



**ONTZIEK SORTUTAKO HONDAKINAK
HARTZEARI BURUZKO ERABILTZAILE-
GIDA**

Berrikuspen-zk.:
24

Data: 2026 ekaina

Or.: 8 / 8

lehorreratzen diren ontzi guztiei; atzerriko ontziak direnean, ingelesez emango diete.